

# ANTZERU



EUSKAL ANTZERAREN  
ILEROKO

## ETXE-ALDAKETA

(EKITALDI BAKARA)

“EUSKELTZALEAK”

ardurapean.

25'en Zenbakia

1934. - Ilbelta

III URTEA.



## 1'go EUSKEL ANTZERTI EGUNA

### ANTZEZLARI-TALDE SARIKETAK

Azkenengo zenbakian esan gendun *"Euskaltzaleak eta Antzerti'k"* alkar artuta jai ta sariketa beñiak eratu zituztela. Bata da: talde bakoitzak bere eritan aurten saritutako antzerki *"Etxe-Aldaketa"* norik obeto antzeztutzea; bigarfen, Donostia'ko Poxpolin-aretoan zer nai antzerki-lan azaltzea alkaren leian. Uxaberkiun geldituko diran talde biek in jaituko da lehenengo "ANTZERTI-EGUNA". Gure asmoak jakin ala *"amabost taldek"* izen eman digute. Alai datoz jolas-gudu ontan sartu narean. Ori da, gazteak: *"Euskaltzaleak"* ta *"Antzerti,"*ren ordezkariak bildu dira epai-mai, egun, toki, ta beste zernola guziak erabakitzeke, ta on eman duten agiria:

Antzezlari taldeen gudu eratzeko, 1934'ngo Ilbeltzaren 23'an, *"Euskaltzalea"*ko batzordea alkartu zan. Euskaltzale batzordekoak ziran, Arzelus'tar A., Barriola'tar I., Olaiola'tar J., Barriola'tar A., eta idazlaria Ariztimuño'tar J.; *"Antzerti"* aldezkingi artezkarria, Labayen'dar A.; *"Poxpolin donostiara"*ko lelakaria Laborda'tar E.; *"Etxe-Aldaketa"*ren egitea, Kafaskede-Olafa'tar J.

Ona erabakiak:

#### ANTZEZLARI-TALDEEN GUDUAK

1'goa.--*Donosti'ko Txapelketa.* Zozkera egin ondoren izendatutako antzezlari taldeak eta igandeak:

Otsailaren 4'an.--Pasai Deun Kepa'ko Eusko Gazte-ntoak.

Otsailaren 11'an.--Umieta'ko Batzokik'ak

Otsailaren 18'an.--Poxpolin'nalde Batzokikoak.

Otsailaren 25'an.--Tolosa'ko "Lizardi" antzezlari-tal lekoak.

# JAKINGAŖIAK.

## Ondo antzezteko bidea.

Gai onetzaz zerbait esatea gure antzezlari-taldeai beaŖezkoa zale. Zeatz eta tajuz antzeztekoa nai ta naiezkoa bai da antzerki-lan bat ona edo txara dan erabakitzeke; polit ala itxusi derizkioten jakiteke. Askotan, antzerki baten garaipen edo ta ondamen, ala "*poŖo egitea*" antzezlarien bizkar dago. Gauz auek edozeŖnek dakizki. Ez dakite guziok ordea ondo antzeztekoa zer dan. "Antzerki lan batean idatzia dagona ez da guzia; ez da gaia baizik zuzendariak antzezkizuna gertu dezan." (Tairof). Lenen-lenengo antzez-lagun banaketa egoki egin bear da. Zuzen begiz jo nork ondoen bete dezaken onelako edo alako antzez-notiŖa... Au egin ezkerro dator norberak "papera" irakuri, aztertu, ta ondoren itzez-itz buruz ikastea. Ez da ikasi bear gutxi-gora-bera, oso-osoan baizik. Egileak onelako itz eta esakuntza ipiŖi ditunean, zerbaitengatik izango da.

Zuzendariak onetsi dun antzerkiari, ondo irakurita gero, ez bezaio antzezlariak ezer aldatu ta jan. Bere "modu" papera esaten duten antzezlariak beste lagunak nastu ta galduarazten dituzte. Bein "*paperak*" ikasiak izan diranean alkaŖekiko saiaketa ta ekitaldiak datoz. Maiz entzun oi da antzezlariak esaten: "papera ba-dakit eta antzezkizun egunez bear bezela egingo det." Au bide txara da. Buruz ezik papera esaten jakin bear da: abots argiz izkindatu, deklamatzan. Bestela, ikustez aspertuak gaudena gertutzen da: alegia, aguroegi ta ixilegi esatea papera ta ikusleak ez entzutea antzezlariak diotena; aopean itzegiten bai-dute. Ori da saiaketa ezak dakaŖena. Izkintzari, deklamazioari lagundu bear dio, arpegi, esku, beso ta nai zoin guziaren keŖu, ximiko ta jokuak. Au ekialdi askoren bidez lortzen da; ta utsegite guziak bertan zuzendu bitez.

Beti da onuragari azken-saiaketa jantzi, apainketa, tresna ta guzti egitea. Au da

“kosmetika” deritzatena: jantziak, soñeko, itxura. Onek eman oi dio antzez-notin bakoitzari bear dun kutsua, zaldunarena ala kalegarbitzalearena; zar edo gazte iduria.

Aiton zafaren antzo atera nai ba'da ez da aski ile-orde zuria edo kaska-soila buru gafiñean eramatea; gafondoa ere zafarena bedi, ta orobat arpegiaren zimufak, ibilera ta abar.

Antziñan antzezleriak mozofoz estalita atera oi ziran. Gaur musu guztia margotuta arkatz goñi ta beltzez, arpègi bat maskaltzen da nai aña.

Azkenik argi-joku, dekorazio, ta antzeztoki apainketan datza garaipenaren erdia. Ertilari on batek, naiz ez izan margolari bikaña, gauza gutxiakin, paper utsez, ametsezko antzeztoki liluragafiak gertu litzazke.

Onu oiek jaraituaz txalougariak jasoko dituzte antzezleriak eta jendetza utziko dute beti pozik.

*Matxingofi.*

**Iruña'ko JOSTARI taldea**

— EMMANUEL —

Zenbait iruñar abertzaleek, Goñi gaztea buru dutelarik,

antzezleri talde au osatu dute. Antzertia dute amets eta elburu. Orain arte euskel-antzertia ikutu ez badute ere, luzaro bano len gure-gureak izango ditugu-ta, aipatu ditzagun, emen ANTZERTI'n.

Orain gutxi Donosti'ra etofiak ditugu, Efege-egun garaiez, “Pedro Mari” ta “Emmanuel” antzeztutzero.

Ez dizut “Pedro Mari” aitatuko, irakurle. Aspaldikoxea da-ta, asko ta askoek txalotu eta goratu dizute. Ala-bearez, alere.

“Emmanuel” ordea, bai, aitatuko dizut. Ta nere motxean, goratu ta txalotu ere bai. Antzokietan gauz atsegiñagorik ikustea ez baita eze!

Zer da bada Emmanuel?

Kristo'ren etofera gai arturik, egin dan antzerki-lan bikañenetakoa. Bata besteen ufengö, antzeztokian egileak erakusten dizkigun zazpi “jaiotz” ikusgafi. Ebaingeriak idatzirik utzitakoa, apaiz batek gaur, ia 2.000 urtez geroz, ezin egokiago befiztutzen diguna. Antzerti-arauak bete-betea, gordetzen ditularik, Ienaro Xabier Vallejos apaiz napar langileak, ikusleen aozeti ta atsegiferako sortu duan antzerki bikaña. Gaia aukerazkoa; ongi josia; alkafizketa bizia; nun-nai olerki

# ETXE-ALDAKETA

Kařaskedo Olařa'tar Yakinda

1933'ko Antzerti'ren batzaldian Lenengo  
— saria irabazitako Antzerkia —

EKITALDI BAKAŘA.



1934—TOLOSA'n: =====  
LOPEZ-MENDIZABAL'enean

## ANTZEZ-LAGUNAK

—=—

ANDRE-KATARIÑE .	Bartoloma'ren emaztea.
JUSTIÑE . . . . .	Ogei ta bi urte.
IRENE . . . . .	Ogei urte.
PANTXIKE. . . . .	Befogei t'amafen bat urte.
BARTOLOMA . . . .	Irurogei t'amafen bat urte.
ERUPIN . . . . .	Ogei ta lau urte.
GORGONI . . . . .	Irurogei urte.
JOKIN . . . . .	Ogei ta sei urte.
JOSEBA. . . . .	Ogei ta lau urte.
MARKELIN . . . . .	Mutikotxua.

# ETXE-ALDAKETA

## EKITALDI BAKARA

Aizkenengo bizitzako gela txiro bat. Atze-aldeko leiotik inguruko telatuk agiri dira. Ezker-aldera, saferako atea; eskubitara, bafurakoa.

Etxe-tresnak, lufean, nolanai. Armayo bat, maitxo bat, alkik eta sila batzuek. Guziak, basefiko sukaldeetan ikusi oi diran bezelakoak.

Basefitik kalera bizitzera datofen sendi bat.

### LENENGO AGEÑALDIA

Justiñe ta Gorgoni.

*Gorgoni* —(*Oazuren batekin sartuaz*) Utsa da ala ere!.. Aizkenengoa da. Ba'zan ordu...!

*Justiñe* —(*Ari dan txukunketari jaraituaz*) Jafi zazu or, Gorgoni; or... lufean...

*Gor.* —(*Lufean oazura jaritakoan*) Etekontrel, izerditzen da, alajaña...!

*Jus.* —Nekatuko ziñan, ezta?

*Gor.* —Nekatu...? Eztakit-pa... Izerdi puskat atera degu bañan; afanopola! Goitxo ez pa'dago ba... maladi askotxo iyo bear dira.

*Jus.* —Zerbait iyo bear da, bai.

*Gor.* —Zerbait bakafik, Justiñe...? Esango nuke, alajaña...! Zerura ere eztu goi ontatik ufuti ufuti ibili bear, gero?

*Jus.* —Utzi degun Ernio-Mendi'tik baño gertugo ote degu ba...?

*Gor.* —(*Burua igituz*) Eztakit, baña... nik ala uste! Eta ori, eřeka zokondoetatik bafena zeozer jetxi gerala-rik... Inpernu zuloraño ortxen nunbait! Baña, alaz gutiz ere, Ernio-Mendi baño gorago gaudela, esango nuke. "Goikoetxe"-basefia baño gorago, bai beintzat! Len "Goikoetxe"koak, eta orain, "Goikozulo"koak, zuek, kalean ere goitar.

- Jus.* — Ezta ofenbesterañó, Gorgoni: laugarfen bizitza...  
*Gor.* — Ezta ala...?  
*Jus.* — Ez, gizon.  
*Gor.* — Erekontrol, ezetz...? (*Bekokia igortziaz*) Iruditu utsez ere izerdia datorkit. Beida, Justíñe: naio det eřeka zuloetatik barna inpernuraño jetxi, or betik onera iyo baño. Ta ori, telatu inguru oetan zerurik eder ta onena arkitu ařen. Baña uff!, toki itsusik goi oek zeru-atarik izateko, noski. Bestelakoxeak dira utzi dituzuten gure mendi-alde ikusgarriak; bestelakoxeak ango baso ta zelaiak; bestelakoxeak, bai...! Kalea kaletafentzat; ezta neretzat egiten dana, edo ez naiz ni kalerako egiña. Ez det betafekin ezertxo ere nai: lapurtxori galantak! Utikan, utikan...! Nik goitar izan nai det... Baña ez telatu inguruetakako goitar. Mendikoa, mendikoa; aize osasungarria ta eguzki edefa ditugun gure alderdi maitekoa. Kale-zulo ilunde, beko xaguzar ta alprojentzat!
- Jus.* — Au Gorgoni..! Betikoa zu: ateraldi zorotzak beti ezpañean.  
*Gor.* — Banua... ta barkatu gaizki esanak.  
*Jus.* — Bazuazela...? Dabaneko...?  
*Gor.* — Banua, bai.  
*Jus.* — Zaude pixkatean, gizon! Ardo txufuplat artuko dezuz, noski? Baña, nun gelditu da Jokin? Ez al du iyo bear? Zoaz, gizon; datofela, datofela, ardo txufuplatek ez dio Jokin'i ere gaitzik egingo-ta.  
*Gor.* — Egia... ori ala da... Ardo txufuplatek eztio iñori gaitzik egiten. Zintzura ere legortu al zaigu-ta... Ekatzu, ekatzu txufuplat!  
*Jus.* — Zoaz ba... Iyo zaitezte azkar.  
*Gor.* Ni jetxi... beřiz iyotzeko...? Oil, etzaidazu ori esan, Justíñe. Ez bai naiz gauza... Txonkatilak kolokan dauzkat, emakume!  
*Jus.* — Zaude, ba. Irene jexkiko da. (*Deituaz*) Irene!

## BIGAREN AGEŘALDIA

Lengoak eta Irene.

- Gor.* — Eztakit, gero, iyo naiko ote dun Jokin'ek.  
*Jus.* — Zer, ba?



- Gor.* —Eztakit, eztakit... Ba'leike Irene'k jakitea.  
*Irene* —(Aizkeneko itzak bukatu baño len sartuaz) Nik...? Zer...?
- Gor.* —Jokin'ek zer duan.  
*Irene* —Nik...? Zer dala-ta nik...?  
*Obr.* —Éztakit, eztakit... Baña, beida: zudur luzea degunok, susmo luzea degu ere. Ufutilik artzen degu usai. Ta... nere semeak eta zuk... Eztakit, eztakit... Baña, esango nuke... Zera!: zeozer dezutela.
- Jus.* —Zeozer dutela...? Oía beraz...! Eta ni, ezertxo ere jakin gabe.
- Irene* —Ez nik ere.  
*Gor.* —Etzet...? Baietz, nik uste. Jokin'ek aspalditik zer duan, nik baño obeto ígafi baitiozu zuk.
- Irene* —Nik ez dakit ezer. Ez baitit beñere ezertxorik nerlesan.  
*Gor.* —Ítzez ez esatea, ba'leike; biotzez ordea...  
*Jus.* —Ara! ara!...  
*Irene* —Nere lagun ona dala baño geio ez dio nere biotzak bereari ñoiz entzun izan. Ori bai: oso lagun onak gera.
- Gor.* —Besterik ez dizula ñoiz esan?  
*Irene* —Ez, ez dit esan.  
*Gor.* —Zure biotzak ez du, orduan, besteren biotz-tanpadik entzuten.
- Jus.* —Biotz-tanpada motelak, ixilak izango ziran.  
*Gor.* —Goferiz ez dagonak entzuteko lain.  
*Jus.* —Irene ezta goofa, ba...  
*Gor.* —Ezta goofa...: belariz; biotzez ordea... goofa ezik baita gogofa ere.
- Irene* —Ez dakit zer esan nai didazun.  
*Gor.* —Ez dakizula...? Zure biotzak ez dakina, bai ote daki, ba, nere zudur luze onek?
- Jus.* —Ba'leike, ba; zudur luzeok susmo luzea dezute-ta.  
*Irene* —Dan baño geio sumatzeko bai beñipein.  
*Gor.* —Dan baño geio, ez; dan ura, bai.  
*Jus.* —Zer da bera, bada...?  
*Gor.* —Gure mutila iyo nai ezik gelditu dala.  
*Jus.* —Iyo nai ezik...? Zer dala-ta, gero...?  
*Gor.* —Oso "triste" dagoala, bai, ta zuek agurtzeko kemenik ez duala-edo...  
*Jus.* —Zer da ori...? Ez digula agurik egin nai...? Ori

bear genuke!

*Gor.* —Ez det esan agur egin nai ez dizutenik; ez da-la ausartzen baño.

*Jus.* —Baita eman ere! Ua, ua Irene!... Datofela, datofela...!

*Irene* —Banitxian. (*Bijoa kalerako atetik*).

## IRUGAREN AGERALDIA

*Gorgoni ta Justiñe.*

*Gor.* —Ze ordu ote degu?

*Jus.* —Seiak laister izan bear dute, ilundu du-ta.

*Gor.* —Berandu gabiltz, ařanopola! Ez dakit noizko etxeratuko geran. Amařetarako etxeratuko ba'gña...

*Jus.* —Amařetarako...? Beñepein... joango al zerate!

*Gor.* —Eztakit-pa... Bizkortxo ibili bearko degu.

*Jus.* —Bide baztařen batean gelditzen ez ba'zerate...

*Gor.* —Zertan...?

*Jus.* —Nik al dakit! Zufutian-edo...

*Gor.* —Ez, ez; txintxo txintxo etxeratu bear degu... ifistadik egin gabe.

*Jus.* —Obe-zute, bai... (*Gazta, ogia ta baxoerdi bat ardo emanaz*) Torizu: bide baztertzerik ez egitekotan, gero...?

*Gor.* —Bai, emakume, bai... Esketak iñork ez digula entzuten. Zer esango luteke bestela? Moskortzat artuko niñuteke. Ta, noizian beingo ifistadak ez dira ofenbesterañoko.

*Jus.* —Ba'dakit, bai, zintzoa zerala. Baña, beida: noizian beingo ifistadak ere, ez egitea obe. Ortatik... onik ez, ta bai kalterik asko.

*Gor.* —Egia, egi galanta. Nolabaiteko korputz aldartietan baña, nork buruan egi galant ori eduki? Aztu egiten zaigu. Ta orduan, oker ustez, gure amofu ta asper-aldiak... zintzuarari emanaz, zer ařano!, baretu nai ginduzke. Alpertxafean guzia! Ardoa irakin-gaia izaki, baretzeko txafa ta asefe-suz burua zorazteko zirikalari pizkofa bai-ta.

*Jus.* —Ta, ori jakinda ere...

*Gor.* —Zintzuarari eman bear, ezta?...

LAUGAREN AGERALDIA

Lengoak Jokin ta Irene.

- Jus.* —Zer da ori, Jokin?... Gu agertu gaberik joan nai omen zendun...
- Jokin* —Ez, baña...
- Jus.* —Orduan... zer dala-ta etzendun iyo nai, ba?
- Jokin* —Ez nengon iyo nai ezik.
- Jus.* —Zure aitak ori esan digu.... etzendula iyo nai.
- Gor.* —Ez det nik ofelakorik esan. Nik ez det esan... Iyo nai ezik zegonik; zuri agur egiten etzala ausartzen baño.
- Jus.* —(*Jokin'i*) Guri agur egin gabe joan, e...? Ederki, ederki; ez genuen zugandik ofelakorik uste.
- Jokin* —Ezta egia, zu<sup>e</sup> agur egin gabe joan nai nuenik... Baña...
- Jus.* —Zer baña...? Zer da ori...? Zer dezu, gizon...? Esaiguzu, esan!
- Jokin* —Ezertxorik ez det.
- Irene* —Esan nai ez pa'dezu...
- Jokin* —Esan, esan... Zertarako esan! Ez det ezer.
- Jus.* —(*Gazta, ogia ta ardoa emanaz*) Torizu ba, Jokin; artzazu txufuplat.
- Jokin* —Ez det nai, eskafikasko.
- Jus.* —Ez dezula nai...? Torizu, gizon! Baxoerdí bat artzeko ez da ofenbeste lelo bear. (*Jokin'ek ar beza*).
- Gor.* —Ekatzu neri ere, edera zegon da.
- Jus.* —Bai, gizon! (*Emanaz*) Torizu!
- Gor.* —(*Artuaz*) Bai edefa!
- Jus.* —(*Gorgoni'ri*) Geio nai al dezu?
- Gor.* —Ez, naikoa det... Joan egin bear degu.
- Jus.* —A!, zaude pixkat, Gorgoni. Lagundu egin bear didazu.
- Gor.* —Zertan...?
- Jus.* —Oazura'n atzeko gelara eramaten.
- Jokin* —Nik laguntzea ez al da berdín?
- Jus.* —Ez, zaude zu. Gorgoni'k lagunduko dit.
- Gor.* —Eraman bear ba'degu, goazen, ba.
- Jus.* —Gurasoak etofi baño len oia jari naf dik.
- Gor.* —Izan ere! nun gelditu dira Bartoloma ta andre Katarife?
- Jus.* —Elizan gelditu dira.. (*Oazurari elduaz, Gorgoni'ri*)

Tira, goazen! (*Irene'ri*) Beteion, neska, beste ba-xoerdi bat Jokin'i. (*Gorgoni ta Justiñe bijoaz bañura, oazura daramatela*).

## BOSGAÑEN AGEÑALDIA

Jokin ta Irene.

- Jokin* —(*Irene'ri, busoa betetzen asten dalarik*) Etzaidazu bete. Ez det geyo nai.
- Irene* —Ez...? Nik eskañita're ez...?
- Jokin* —Ez det gogorik baña... artuko det... zuk eskaintzen didazulako.
- Irene* —Banengoan, ba...
- Jokin* —(*Edan beza*) (*Ixilunetxoa*) Pozik izango zera ■, ezta?
- Irene* —Pozik...? Ez dakit zergatik.
- Jokin* —Ez dakizula...?
- Irene* —Ez.
- Jokin* —Kalera etorri zeratelako, ta... baseñitafak zure diña ez geralako...
- Irene* —Nork esan dizu ori?
- Jokin* —Zeofek.
- Irene* —Nik...? Ara beraz!, ta ni ezertxo're jakin gabe.
- Jokin* —Orain ba'dakizu, ba.
- Irene* —Ez det nik ofelakorik esan.
- Jokin* —Etzazu uka, Irene; bein baño gelgoan neroni esan izan didazuna da-ta.
- Irene* —Nik...?
- Jokin* —Zuk, bai!
- Irene* —Afitzen naiz, Jokin! Ez naiz gogoratzen noiz esan ote dizudan ofelakorik nik. Egitan, ez naiz gogoratzen!
- Jokin* —Noiz esan didazun...? Eta neroni galdetzen didazu...?
- Irene* —Zuk amets egin dezu.
- Jokin* —Amets...? Ba'leike...! Baña ametsetan ari izan ba'naiz ere, nere ametsak ez dira lotan egindakoak izan. Ametsak, bai; baña nere gogoari atsegin zitzaizkan amets gozoak... Eta zuk...
- Irene* —Nik zer...?
- Jokin* —Zuk beste ametsak izaki. Nereok ez izan zure gogoko... Baseñitafak ez izan zure diña...
- Irene* —Baña nork esan dizu ori, Jokin...?
- Jokin* —Zeofek!

- Irene* —Nik...? Baña noiz...?  
*Jokin* —Noiz esan didazun...? Eta neroni galdetzen didazu, Irene...? Noiz!: zurekin itzegin dedan bakoitzean; zuregana joaten nintzan ordu guzietan... Noiz!: nere bhotz bafuan darabillkidan gogo beroa zuri azaldu nai nizun unero... eta zuk, nere asmoen befi ez ba'zenekizu bezela, jaramonik egiten etzidazu netan... Noiz!, galdetzen didazu...? Kalerako gogo agertzen zenidan bakoitzean... Bai al dakizu orain...? Len ere bai! Baña alaz ere, ni atsekabez jartzeafen-edo, kalerako gogo ori pozik agertu ez-padezu, ba, beti beti... Ez al da egia, Irene?  
*Irene* —Egia... Ez dakit zer esan... Beida, Jokin: etzaitez atsekabetu, Jainkoafen! Zer egingo degu... Nere gogoak bakafik etzan kalerako gogo ori. Nere aizpak, nere anaiak, guziok genuen kalera etortzeko ifikia.  
*Jokin* —Guziok, ez. Bartoloma'k eta andre Katariñe'k ere bai...? Ez, zuen gurasoak etzuten nai. Zeon gogoak poztutzeafen, gurasoen gogoan naigabez jafi dituzute.  
*Irene* —Zer nai dezu... Guzion gogoak ezin bete. Ta kalean baseian baño obeto biziko geralakoan etofi gera...  
*Jokin* —Ba'leike... Obe, obe; ta asko poztuko nintzake... Ez baitakigu zoriona nun darkikegun. Obe, obe...! (*Ixilune baten ostean, gurasoak sartu bitez kalerako atetik.*)

## SEIGAREN AGERALDIA

Lengoak, Bartoloma ta andre Katariñe.

- Irene* —(*Gurasoai*) Bukatu al da?  
*A. Kata.* —Bai. Enel, neka neka egiñik naiz...  
*Barto.* —(*Jokin 'i*) Oraindik emen zerate...?  
*Jokin* —Oraindik emen gera, bai.  
*A. Kata.* —Tresna guziak iyo al dituzute?  
*Jokin* —Bai, iyo ditugu.  
*A. Kata.* —Guziak...?  
*Jokin* —Bai, guziak.  
*Barto.* —Gorgoni joan al da?  
*Irene* —Bafuan da... Justiñe'kin.  
*A. Kata.* —Ta, Joseba Iñaki?  
*Irene* —Kalean.  
*A. Kata.* —Kalean...? Zertan...?  
*Irene* —Lantegira joan da... naguslarengana .

## ZAZPIGAÑEN AGEÑALDIA

Lengoak, Gorgoni ta Justiñe.

*Gorgo.* —(*Gurasoai*) Kaxo!, naiko eñezu egin al da?

*A. Kata.* —Gaurko bai.

*Gorgo.* —(*Bartoloma'ri*) Ta, zer derizkiozu Bartoloma? Kaletar zerate!

*Barto.* —Kaletar...? Um!, Kaletar izateko beñiz jayo bear-ko diagu, Gorgoni.

*Gorgo.* —Zer ba...?

*Barto.* —Baseñitaña...kalean ere baseñitar. Kaletartzat esku gogortxoak bai'tizkiagu.

*Gorgo.* —Ba'dira, ba, kalean, añañopola!, esku-leundutako amaika baseñitar. Zuri ere leunduko zaizkizu, Bartoloma. Ta orduan, nork daki, alkate-edo...

*Barto.* —Ago ixilik!

*A. Kata.* —Au Gorgoni...!

*Jus.* —Beti aldarate oneko.

*Gorgo.* —Zer egingo degu, ba... Onartea galtzen ba'degu, gureak egin du! Baña etzazutela uste... Beida: arpegi-alai agertu-añen, ez dakit, neroni ere... umore-itxura utsean ez ote naizen ari-edo... Baña, ea!, baseñitar bati ez dagokio biotz zimikorik... ezta ere, negar muxintarik... Baña, biotz gabeak ere ez gerata... Ea, ea!; obe degu etxera lenbailen joan.

*Jokin* —Bai, garaia degu.

*Gorgo.* —Ba'dakizute: gu lengoak izango gera beti... lagun zafak... Ta, nun bizi geran ba'dakizute-ta... ez dago esan beañik. "Etxegain"-baseñiko ateak zabalik dituzute beti.

*A. Kata.* —Zuek ere ba'dakizute...

*Jus.* —Kalera jeixten zeratenetan, iyo. Oso goyen bizi gerlako, ez bildurtu, gero?...

*Gorgo.* —Ez, emakume. Agur, Bartoloma; ekatzu bosteko ori! (*Agurtu bitez*) Agur, guzoi!

*A. Kata.* —Gorantzik etxeko guziai!

*Jokin* —Agur, ikusi arte!

*Jus.* —Ikusi arte...? Zer da ori .?

*Jokin* —Agur, bada...

*Irene* —Agur, Jokin!

*Gor.* —Agur, agur...! (*Gorgoni ta Jokin joan bitez kalerako atetik*) (*Ixilunea*).

*A. Kata.* — (*Alabai*) Gure soñekoak nun sartu dituzute?

*Jus.* — Beon gelan an ditue... ate-atzean zintzilik.

*A. Kata.* — Ta albarketak...?

*Jus.* — An ditue, an ditue beok gauza guziak.

*A. Kata.* — Tira, ba, goazen, Bartoloma. (*Bartoloma ta Kata-riñe bijoaz bañurako atetik*).

### ZORTZIGAÑEN AGEÑALDIA

**Justiñe ta Irene; geroxeago Joseba Iñaki ta Eñupin.**

*Jus.* — (*Irene'ri*) Elduion kutxa oni.

*Irene* — Nora eraman bear diñan?

*Jus.* — Bañura. (*Oin-otsak entzutean*) Norbait diñagu...

*J. Iña.* — (*Kalerako atetik sartuaz ta agiri ez dan Eñupin'i*)  
Ator auñera.

*Eñu.* — (*Sartuaz*) Gabon!

*Bi aizpak* - Gabon!

*J. Iña.* — (*Eñupin'i*) Ik ez dituk ezagutzen, ezta...? (*Aurkezpena egiñaz*) Nere añebak: Justiñe... Irene... (*Añebai*) Iturbe'tar Eñupin nere lagun ona.

*Jus.* — Zu zera beraz Eñupin... Zutzaz maiz itzegin digu gure anaiak.

*Irene* — Batez ere, soldaruzkaldiko zuen gauzatzaz.

*Eñu.* — Izan ere, soldaruzkan ezagutu genuen alkar. Alek egunak! Ezta ala, Joseba Iñaki?

*J. Iña.* — Bai moteil...! Ago emen, nere añebakin. Belaxen emen nauk.

*Eñu.* — Etziok presik... Ongi natxiok... Ez dek beti onelako laguntz edefean bat arkitzen ere-ta.

*J. Iña.* — Bai, e..? (*Bijoa bañurako atetik*).

### BEDERATZIGAÑEN AGEÑALDIA

**Eñupin, Justiñe ta Irene.**

*Jus.* — (*Eñupin'i*) Maxiatzalea al zaitugu?

*Eñu.* — Ni..? Bai zera!

*Jus.* — Ala dirudi; ezagutu ordukoxe maxiatzen asi zera-ta.

*Irene* — Berez izan bear kaletafa.

*Eñu.* — Ta, kaletafak maxiatzaleak al gera, ba?

*Jus.* — Besterik ez.

*Eñu.* — Guziok?

*Jus.* — Geienak.

- Efu.* —Ni ez naiz, ba.
- Irene* —Etzaitugu, orduan, kaletar kaletara.
- Efu.* —Nere kaletar jatofia uka ez dezadan, beraz, zuen edertasunaz afiturik -nagola, aitortu beafik bai ote?...  
*Jus.* —Ezer gutxik afitzen du, enetxoal zure jatofizko kaletar izate ori.
- Irene* —Menditar batzuek...
- Efu.* —Menditar batzuek, bai; mendiko giro-onak zuen arpegi mardul-gurietan jafi duan atsegiñaren edefak; zuen ezpain gofietako gingaren gozoak...
- Irene* —Kaletar batentzat...? Baita emen ere! Gezatzxoak dira...
- Jus.* —Gezatzxoak eta moteltxoak .. Ez bai-tira oraindik eldu!
- Efu.* —Ene, ene...! Etzerate motelak... itzez beintzat.
- Jus.* —Kaletar baten afean, bai.
- Irene* —Basefitafak ez baijegu kaletafen bizitasunik.
- Efu.* —Ez dezute kalean ikasi bear aundirik, noski, emengo zuntzun askoren artean zuen bizitasuna argiro erakusteko.
- Irene* —Ezetz...? Ta, kaletar tankera... kaletar apaintasuna... Ezta ori ofen efex-efexa...!
- Efu.* —Ori da efexena. Tankera nornaik artzen du. Kas-kamotz agertzea naikoa dezute.
- Jus.* —Guk mototza moztu...? Ez orixe!
- Efu.* —Kaletar izan nai duanak, ba, anak ariñak eta buruba ariñago, bear ditu.
- Irene* —Ta, kanta-zafeko neska zuntzun ark bezela, dantzan obeto jakin artajofan baño. Ezta?
- Efu.* —Ori, ori!
- Jus.* —Guk, beraz, arta-jofaketak utzi ditugu-ta, dantzan ikasi bearko degu orain. Eztago gaizki!
- Efu.* —Ez al dakizute?
- Jus.* —Kaletafen eran, ez. Basefian ezta besarkadatutako dantz-egiterik.
- Efu.* —Ezetz...? Iñoiz ikusi izan ditut, ba..., Orduan ikasi beafean zerate; ez baita kalean beste dantzaketarik orain egiten.
- Irene* —Ezta efex izango!
- Jus.* —Nornai asten da orain ikasten. Ez gaude itxura txafean ta estropozka ibiltzeko. Bai zera!



- Efu.* — Ofen zala ezta.... Beriala ikasiko dezute. Nai ba-dezute, neronek erakutsiko dizuet.
- Irene* — Bai, e...?
- Efu.* — Pozik ala're!
- Jus.* — Ez, eskafikasko. Ez gaude pafagari agertzeko urtietan.
- Irene* — Zartxoak gera...
- Efu.* — Barkatu, enel, ez nekin emezazpi urtetik berako "neskazafak" ziñatenik.
- Irene* — Emezazpi urte...? zartxeagoak, adizkide!
- Efu.* — Zenbat geigokoak, ba?
- Jus.* — Ogeitik gorako "neskazafak".
- Efu.* — Ofenbeste bai...? Ez dirudizute.
- Irene* — Ofa, ba, zuk uste baño zafagoak gera.
- Jus.* — (*Aizpagatik eta beragatik*) Ogei eta ogei-ta-bi urteko "neskazafak".
- Efu.* — Zuek bezelako "neskazafen" otoitzetan, bada, San Antoniyok gogoan iduki nazala.
- Jus.* — Um!, etzaude zu San Antoniyoko txafa.
- Efu.* — Ja, ja...!

## AMARGAREN AGEÁLDIA

### Lengoak eta Joseba Iñaki.

- J. Iña.* — Dirudinez, oso adiskide egin zerate.
- Efu.* — Nola ez! Ez nian uste, Joseba-Iñaki, onen afeba atsegiñak ituanik. Nai ta nai ez adiskide egin bear.
- J. Iña.* — Pozten nauk...
- Efu.* — Ni bai beintzat poztu nauk, eta ez gutxi ere, ire afebak ezagutuaz. Egitan: ez nian uste onen afeba atsegiñak ituanik. Nork uste?, ire antzik ez bai ditek!
- J. Iña.* — Ago ixilik, itz-jario ez besteren ori! Goazemak!
- Efu.* — Ona emen bestearen ateraldia! Asefetu egin zaigu! gizarajoa. Ofa!: arpegiz zuen antzik ez dualako, edo zuek, zorionez, bere antzik ez dezutelako... Ori bai: izakeraz bete beteko antza dezute. Joseba-Iñaki ere, oso atsegiña bai-ta.
- Jus.* — Bai, bai... ari zera orain ere zu.
- Irene* — Etzaude abo-bero txafa!
- Jus.* (*Kalean igarotzen dan eres-batzaren otzak entzunaz*). — Zer da kaleko zarata ori?
- Efu.* — Ez al dakizute?

- Jus.* — Ez.
- Irene* — Zer da?
- Efu.* — “Kokotz,,’eneko indianoa orain omen dator.
- J. Iña.* — Zazpietako trenean.
- Irene* — Ta, indiano bat datofelako zarata ori guzia?
- Efu.* — Jakiña: aberats puñkatua bai-ta. Igaz pelota-plaza befia egiteko bi mila duro aundi eman zituan. Ta ofelako esku-zabal bati...
- J. Iña.* — (*Itza Efu pin’l etenaz*) Ba’algoaz ala ez!
- Efu.* — (*Jaramonik egin gabe*) Ofelako esku-zabal bati, diot, ongi-etofi bat egin bear zaio, sakela alik eta maizen iriki dezan.
- Irene* — Bai, bai...; guzia diruagatik...
- Jus.* — Jakiña!
- Efu.* — Emen etzalo iñori bere arpegiagatik eder-egiten.
- J. Iña.* — (*Efu pin’l*) Bukatu al dek?
- Efu.* — Ez al diguk itz bi egiten lasai utzi bear?
- J. Iña.* Ori dek...! Itz bi, e...? Garaia dek nai dekanean. Ta, itzegiten lasai utzi bear ba-dit, alkia artzera niak. (*Exeri bedi*).
- Jus.* — (*Efu pin’l*) Izan ere, ez dizugu alkirik eskañl.
- Irene* — (*Alkia eskañiz*) Exeri nai al dezu?
- J. Iñaki* — Oñi alkia...? (*Jo itxuraz*) Nik bai emango diotala alkiarekin... Tira, tira, goazemak!
- Efu.* — (*Bi atzapai*) Tira, ba; joan egin bearko degu... Ta, zuek ez al zatozte...?
- Jus.* — Gu, nora...?
- Irene* — Itxura ontan...
- Efu.* — Apaintzeko oraindik ba dezute beta.
- Jus.* — Norako baña?
- Efu.* — Ara befiz!...; indianoari ongi-etofia egitera joateko. (*Erlojuari begiratuaz*) Ogei minutu ba dauzkazute.
- J. Iña.* — Bai-ta eman ere!
- Irene* — Agidanez i ba’goa, ba.
- J. Iña.* — Ni iñori ongi-etofia egitera... Bai-ta zea ere!
- Jus.* — Norako aldatu aiz, ba?
- J. Iña.* — Iñorako ez.
- Jus.* — Apaitara noiz etofiko aiz?
- Efu.* — “Akele,,’nean apaltzeko asmoetan gera.
- J. Iña.* — (*Efu pin’l*) Goazemak eta etzaiek jakin bear ez’tue-

nik esan. (*Kaleruntz bijoa*).

*Efu.* —Jetxiko zerate, noski? (*Ixilpean*) Gero, indianoaren omenez, plaza-beñin musika da... Gero arte, ezta...?

*Irene* —(*Justiñe'ri*) Joango al gaitun?

*Efu.* —Gero arte, orduan. Agur!

*Bi aizpak*—Agur! (*Bijoa Erupein kalerako utetik*).

### AMAIKAGAÑEN AGEÑALDIA

*Justiñe ta Irene. Gero, andre Katarñe.*

*Irene* —Jetxiko al gaitun?

*Jus.* —I beintzat, neska, jeizteko ifiki ikusten aut.

*Irene* —Ona bestearen tentelkeria! Ta i ez al aiz ifikiz? Etzanala, neska, zuntzun arpegirik jafi... Joango gaitun, bai ala ez?

*Jus.* —Ta... afaldu?...

*Irene* —Musika bukatzean afalduko diñagu.

*Jus.* —Ta... gurasoak?...

*Irene* Bakarik afaltzea diñate. Ta gero, aspertzen ba'dira, oeratu ditezela.

*Jus.* —Joango al gaitun, ba?...

*Irene* —Bai, neska! Soñekoak nun dizkiñagu?

*A. Kata.* —(*Aizkenengo itzak bukatu baño len sartuaz*) Soñekoak?... Zertarako bear dituzute soñekoak orain...

*Irene* —Ezkerazarpatsu itxura ontan jetxiko, noski.

*A. Kata.* —Jetxi?...

*Irene* —Bai, emakumel, plazara goaz. Ba'dakizu orain.

*Jus.* —(*Irene'ri*) Atea unan... Ua nor ote dan. (*Irene bijoa ikusten eztan eskail-buru-atera ta sartu bedi Pantxike ta beronen semetxoarekin. Markelin'ek amari atzetik dafaikio, gonetatik elduaz, utzi gabe. Pantxike'k—urteetan sartutako alargun gordiña bera—, aboberoko emakumeak bezela itzegin beza: beritsu, baña leun-leun*).

### AMABIGAÑEN AGEÑALDIA

*Lengoak eta Pantxike semetarekin.*

*Pan.* —(*Betor beritsuketan*) Ofa badal... Kalera etofi zerate bizitzera beraz!... Ezertxo ere ez nekien... Nork esan didan bai al dakizute? Zuen Joseba-Iñaki'k. Ain

txuxen ere, kalebafenetik ginjoazela, ara! zuen Joseba-lñaki "Akele,"neko taberna atarian... Berak esan didanekoxe, arnasik artzeko betarik gabe, enetxoal, ni onera laisterka... Izan ere, etzan gutxigorako!... Baña andre Katariñe, aspaldiko lagun zar maite ori, ez al didazu laztan bat eman bear?... Atorkit, emakume!

A. Kata. — (*Laztanduaz*) Pantxikel!...

Pan. — Oso onik arkitzen zaitut... Eta zure alabak... zer esanik ez! Ongi ezagun ez-pai'dute, ba, noren alabak diran (*Semea'ri*) Baña, seme Markelin... pakean utziko al didak gonetatik tira gabe?

Jus. — Zure semea al da?... Bai edefa!

Irene — Nola deitu diozu?

Pan. — Markelin.

Irene — Atoz, Markelin; ekatzu musu, maite. (*Markelin'ek zaputz*).

Pan. — Onek iñori musu eman... Onelako kaxka lurik ezta iñoiz sortu ta sortuko ere ezta. Etxetik aterazi bitartean ez dit pakean utzi: (*Aur mintzoaz*) "Plaxara joan nai det plaxara". Eta pakean utziko ba'zidan, utzi itzazu egiteko guziak alde batera ta irten zaitetz ume mukitsu onekin kalera. Ta guzia, "Kokotz" 'eneko indianoa edo olako mutil-zar ori datofelako.

Irene — (*Aizpagatik eta beragatik*) Guk ere joan nai genuke, ba...

Jus. — Aldatzera goaz, bai... ta aitari beofi etofi dala, esango diogu.

Pan. — Ain txuxen ere, zeok igafi didazute nere asmoa. Bartoloma nun da?... galdetzera ba'ninjoakizuten. Zoazte, bai, zoazte... (*Justiñe ta Irene bijoaz bañura*) (*Semeart*) Baña zer dek, seme Markelin, etsaiak al dituk bañuan, ni onela zirikatatzeko?

Marke. — (*Muxinka*) Plaxara joan nai dedala...

Pan. — "Plaxara joan nai dedala" Ago ixilik, petral alena ez besterena, ez dek oraingoxeko leloa ere-ta... Baña, Katariñe, zedozer esan bezait! Ez dirudizu lengoa.

A. Kata. — Zer esan dezaizuket, Pantxike?... Ona emen Bartoloma... (*Bartoloma sartu bedi, geldiro-geldiro*).

Pan. — (*Bartoloma'rt*) Ongi etofia, ongi etofia...!

Barto. — Eskafikasko, Pantxike...

*Pan.* —Zuei agur egitera etofi naiz; beste egitekorik gabe etofi ere etofi... Zuek etofi zeratela, zuen seme Joseba-lñaki'k esan didanekoxe, buruak esan dit: ua Pantxike, Bartoloma'ri ta andre Katariñe'ri agur egitera, ongi etofia ematera... Ongi egin al det?

*Barto.* —Bai, emakume...

*Pan.* —Oña beraz, kalera etofi zerate... Ederki, ederki...!

*Barto.* —Ederki diozu, Pantxike?... Gero ikusi bearko degu ori.

*A. Kata.* —Gure gogoz ez gera etofi, Pantxike...! Gero ikusi bearko degu, bai... Baña ba'dakizu: semeak kalerako ifikiz ziran-eta... guk zer egin genezaken etortzea baño?... Zer du kaleak!, Pantxike?...

*Pan.* —Kaleak zer dun?... Bai al dakizute nere senafa zanak kalea zertzala, esaten zuen?: “Kalea, kalea... gazteen amets-eragile ta zorapena aizen kalea zenbati iruzur egin diek, bafuan daramakan lander-atsekabearen aña, azal-uts dan edergafiz apaidurik estaltzen ain ongi dakikan gezurti ofek!” Ori da kalea; guzia gezuña ez ba'da ere, geiena bai beintzat... Baña, ene seme Markelin, geldirik egongo al aiz neri geigo ernerazi gabe...? Kanean geiena gezuña da, bai... Begira: onako neskatx olek, ara!, onen apain ta dotore, aberats antzo agertzen dira. Baña guzia gezuña; alako dendatan bi ilabeteko ogiak zor dituztelako... Aloko gizon ura, ara!, afen zintzo ta etxekol ba'dirudi ere ezta egia; gau-orduetan maiztxo ikusten bai-ta alderoka etxeratzen... Ta, ofoko beste jaun aundiki oriek, ara!, elizatik ez al dira irten?... Bai, oso elizkoiak eta kristau onak dirudite; baña, bai zera!, berak aberats okituak izaki, aien beargiñak, zor ta lor, gosez bizi diralako... Ori da kaleko egirik gafatzena: mixeriya, mixeriya...! Geigo jakin nai aldezute?

*A. Kata.* —Ez, ez; naikoa da, Pantxike!

*Pan.* —Geigo ta geigo esan nezaizuket. Baña etzaitutet aspertu nai, eta ez dizuet, ez orixe!, zuen gogo-biotzetara goibeltasunik erakafi nai ere... Baña, begira: beste alako aiek ere, aral...

*Barto.* —Ez, Patxike, ez; etzaiguzu, Jainkcafen!, ezer geigo esan, naikoa da, naikoa!...

*Pan.* —(Aurari) Ago geldirik, Markelin...!

*Marke.* —Plaxara joan nai dedala...

*Pan.* —Ago ixilik, ume petral ori! Zer esan bear ditek, ene Markelin, Bartoloma'k eta andre Katariñe'k? Zafagoak itz egiten ari diranetan umeen egitekoa ixil-ixilik ego-tea dek. Ez al dik maixu jaunak ori erakusten? Jakiteko ordua ba dek ik, ba... (*Ixilunetxo*) Tira, bada, plazara joan bearko degu, ume kaskalu au ixildu dedin. Onezkero, ain bete-betean ere, "Kokotz," eneko indiano afo puts ori etortzeko garai da-ta. Zer derizkiote: igaz bi mila duro aundi eman etzituan, ba, pelota-plaza befia egiteko, ziotenez. Ba'darabilkigu, orain, afokeria ugar, enetxoa! Bi mila duro... ez pelota-plaza egiteko bakafik; ongi-etofiak egiteagatik, alajaiñal Afokeria, afokeria ugar!... (*Justiñe ta Irene, plazarako gertu, gurasoentzat ontzi batean aparria dakarkitela*).

*Jus.* —Oraindik emen al zaitugu, Pantxike.

*Pan.* —Oraintxen giñan joateko asmoetan.

*Irene* —Alkafektin jetxiko gera. (*Gurasoai, ontzia mai gainean jafiaz*) Ona, afaldu bezate beok. (*Pantxike'ri*) Zuri ez dizugu ezer eskañiko, ez dezu, noski, ezer naiko-ta.

*Pan.* —Ez, eskafikasko.

*Jus.* —Nai dezunean, Pantxike, jetxi gaitzek.

*Pan.* —Agur, ba... andre Katariñe. Agur, Bartoloma... Ongi etofia bloi ta Jainkoak gabon!

*A. Kata.* —Jainkoak gabon!

*Barto.* —Agur! (*Bijoaz Pantxike ta semea, Justiñe ta Irene*).

### AMAIRUGAÑEN AGEÑALDIA

Gurasoak bakafik. Bartoloma maira jafita; andre Katariñe, maia antolatzen. Ixilaldi luzexamafa.

*A. Kata.* —Bartoloma...

*Barto.* —Zer, Katariñe?...

*A. Kata.* —Zer dezu, gizon? Zu etzaude onik.

*Barto.* —Zer, ba?...

*A. Kata.* —Nik al dakit! Irudipenetan ote zauden-edo...

*Barto.* —Ez ba?...

*A. Kata.* —(*Janaria jafiaz*) Torizul! (*Ixilunea*) Jantzazu, Bartoloma.

*Barto.* —Ez daukat gogo aun-aundirik...

**A. Kata.**—Gogorik ez dezula?... Zer dezu, gizon?... Zuk zedozer darabilkizu buruan. Etzaidazu ezetzik esan. Ofela ego- teko zerbait ba'dezu, beñipein.

**Barto.** —Nik?... Ez det ezer, emakume.

**A. Kata.**—Ez dakit, ba... Ez nuke ezetzik esango. (*Ixilunea*) Jantzazu, gizon!

**Barto.** —Gogorik ez bai det...

**A. Kata.**—Baña, Bartoloma, zer da zure goibeltasun ori? Zer buruauste dira zureok?... Etzazula, gizon, pentsamentu ilunetan bururik galdu... utzi itzazu alde batera pentsa- mentu txar guziak!

**Barto.** —Pentsamentu txafak... Ori eñez al da, Katariñe? Ezta eñez, ez...! Zartzaroan kalera etortze onek...

**A. Kata.**—Ene bada!... Ori al degu guzia?... Tira, tira!... zaude ixilik, Bartoloma, emen ere biziko gera-ta.

**Barto.** —Bai, bai...

**A. Kata.**—Bai, gizon, bai!. Ez gera gosez ilko. Gure Joseba- lñaki zintzoa da, bai langileea ere, langilerik iñor baldin ba'da. Justifne ta Irene ere, onak eta langileak dira. Eta guk ere, zartxamañak izan afen, lan egin genezake oraindik...

**Barto.** —Lanak ez nau beldurtzen. Ezta ori!

**A. Kata.**—Zer dezu orduan?

**Barto.** —Ez dakit.

**A. Kata.**—Ez dakizula?...

**Barto.** —Lanak ez nau beldurtzen, ez... kaleak beldurtzen nau.

**A. Kata.**—Kaleak?... Zer dala-ta kaleak?...

**Barto.** —Menditafentzat egiña ez dalako.

**A. Kata.**—Ara ateraldia! Makiñat menditar bizi dira, ba, kalean. Eta besteak bizi diran tokin gu ere bizi gaitezke, uste det.

**Barto.** —Um!... zartxoak gera!

**A. Kata.**—Zartxoak?... Egia: urteak ba'ditugu... ez gutxi ere. Ba- ña osasuna degun bitartean, ez gaitezen beldurtiak izan.

**Barto.** —Bai, bai...

**A. Kata.**—Bai, gizon, bai! Basefiko nekeetara oitua dagona, ka- leko nekeetara ere jafiko al da.

**Barto.** —Landare beñiak nunai itsatsitzen dira; baña zafak...

**A. Kata.**—Etsiko gera, bai.

**Barto.** —Baileike. Beldur naiz baña, zartxoak ez ote geran. Gure aldaketan, gure sustrai bizienak eten egin dizkigu-

te, ta mendian gelditu zaizkigu. Ta, sustrai beñiak bota-  
tzeko, aultxoak gera, joan zitzaizkigun kemenak... Ba-  
ña, ori naiko gaitz dalarik ere, ezia okerená.

*A. Kata.* —Zer, ba?..

*Barto.* —Ez al dezu ilusten, Katarinë? . (*Atsekabez*) Au...  
gure bakartasun aul... Etortzea besterik ez degu egin,  
ta ikusten dezu bakarik utzi gaitazte!

*A. Kata.* —Bascian ere gelditzen giñan.

*Barto.* —Ez, Katarinë, bascian ez giñan bakarik gelditzen. Ba-  
karik uzten giñutenetan, ere, ez giñan bakarik gelditzen.  
An inguruko guzia ezagun bai zitzaigun. Zakufen zaur-  
kak, beien mafuk, olafen kukufuk, oiartzun guzi-guziak  
ezagun bai zitzaizkigun... Ta gañera, ba'giñekin gure  
semeak norizukin biltzen ziran ere. Bana emen...

*A. Kata.* —Gure semeak... bai ote?... Ene, ene!... Bai ote?..  
Ez! ez!... Gure semeak onak dira. Ene, ene!...

*Barto.* —Zer dezu, Katarinë!... Negafez zaude!...

*A. Kata.* —Ene, ene!... Jainko maitea!... Ene, ene!...

*Barto.* —Zaude ixilik, Katarinë!..

*A. Kata.* —Bai ote?... Ez, ez!... Onak dira!

*Barto.* —Zer dezu, Katarinë?..

*A. Kata.* —Ez del ezer... Utsa zan...

*Barto.* —Utsa?... Zeozer zer dun orduan? ..

*A. Kata.* —Pentsamentu txar bat etofi zait burura.

*Barto.* —Uxa itzazu pentsamentu txar guziak.

*A. Kata.* —Baña ori gertatuko balitz?..

*Barto.* —Baña zer?

*A. Kata.* —Ez, ez!.. Ez dira ofelakoak gure semeak.

*Barto.* —Nolakoak baña?..

*A. Kata.* —Ez, ez!... Ene Jainko maitea!... Ene, ene ba-da!...

*Barto.* —Etzazula negar egin, Katarinë . Ixildu zaitoz... Etzai-  
tut negafez ilusi nar... Txuka itzazu malkoak... Nai-  
koa da, naikoa!...

*A. Kata.* —Ez, ez... Ez dira, ez!...

*Barto.* —Ene!... zaude ixilik, Katarinë!... Croazen lotara... Eka-  
tzu esku... Atoz!... atoz... (*Bir'oaz geldiro*).



eder edefak; esanaldi entzun-gafiak, eta erakuspen obeak. Euskal-usaia ere ba-du. An ikusten degu Euskal-Efia (artzaiak, iruleak, dantzariak, agintariak eta abar), aur jaiio befiari agur egitera datorkiola. Edefa, gauz edefa benetan. Txalo beroak egile azkañari.

Oña or "Emmapuel", nere iritziz. Oña or, irakurle, zure burua "eder-zale" jotzen badezu, ikustera beartua zauden "jaiotz" polit-polita, "jostari" tafak, gañera oi dutenez ezin obeto antzezten dizute.

Erderaz egiña da-ta, alare, ANTZERTI'n lefo abek eskeintzen zaizkio. Euskerara itzuli bear litzakela-ta, aditu bai-degu. Ia, euskel-idazleok! Ez ote, zuen artean, lan aberko'i oneri lenbailen ckingo dionik?

*"Jostari" koei, orain, oar-txo bat.*

Donosti'rakoan, Tolosa'ko Abefi-Etxean izan ziñatenean, zuen artean, ugari xamar (uste baño geiago) oartu genitun, euskeraz ezez ta garbi mintzo zekitenak. Euskel-antzeslari-taldetxoa osatu bear zenuteke. Ta ofela, batzuk erderaz noski, Eñibera aldera. Baña, bai lan polita egin zenezake-tena, datofen Udabefin asita, or, Ulzama, Basaburu, Lañau, Baztan, Napaño-euskaldun dan

zati maitagañi ortara, zuen euzkel-antzeslariak noizik bein bidali ezkeroz.

Agur "jostari" tafak.

Gazteak zerate, Langileak (Abertzaleak izaki) ere bai. Ia, bada. Ekin-eta-jafal. Zuegan degu uste-on eta itxaropen, "ANTZERTI" aldizkin-gikoak.

ZIMITZ.

## IRITZI-MIRITZIKA

Tolosa'ko Uret: antzoki-zaleok, antzerti-pizkundeari buruz zertxobait ikusiak gaituzute joandanco urtebetean.

Efegenez, "ABERE-INDA-RA" lenen-aldiz erabiltzen ikustea izan gendun. Bertantxe ninduzuten. Benavente'ren "FUERZA BRUTA"ren itzulpena dezute, "ABERE-INDA-RA" dalako bi ekitalditako antzerki-gai au.

Elebikoitza da. Lenengo zatian erdera nagusi: gaiak ala eskatzen baidizu. Bigaena euskera utsez.

Gaztelar idazlari sonatua-ren izena aski, antzerti-arauz goi-malakotzat lan ura jotzeko. Igartzen zaio: gai-sakontasun eta erabiltze-borobiltasunean. Baibaitizu gañera Benavente'ren eskuak darion ala-

koxe belun-izerdi antzeko zerbait.

Itzularia iaioa benez. Baudu gai lanketa auetarako Zaitegi Abak.

Ikus-miña asea dedalarik, irudipenak demaidan argazki afean, zenbait gogai sort-erazi dizkit "ABERE-INDARRA,"k.

Galenenetakoa auxe noski: euskel-antzerki zugaitzari, adar sendoenetako bat ostotzen badijoakiola. Erdel-izkuntzetako antzerki-gai itzulpen adafalegia.

Eta auxe onurakor izan benetan. Batezere, "zera" aukerak dirala-ta.

Euskerari, aipagafi-bidea demaio.

Efiari befiz, azikera: ertiazikera alegia.

Uste aldezute, Shakespeare, Rabindranath Tagore, Sopokel eta Martinez Sierra'ren antzerki-gai aipatuena euskeratu dirala-ta, Abefiz-at oargabea dirala? Bai zera! Atzetitako izpafingi eta jakintza-aldizkingietara itzulpen oien befi ematen batere salatzen bagera, ez da olako zigorkadarik Unamuno, Baroja eta abaren esamesentzat. Amafeko osoa euskeraren alde. Eta jakinbera diran eleen bafutira

euskera eramateko a zer bultzada!

Efia, antzerki-gauzetan azikera beafean degu Mingafila benez, gaur dakusakeguna. Edozein "sainete" gisako kirtenkeri ikus-miñez ditugu euskel-antzerki-zaleak. Batere tajuzko "komedi" edo "drama" itxurako zerbait eskeñi, eta ikusleak aozabalka.

Gaitz au osatzeko zer bide?

Ona zenbait lekutarako beintzat, bide bat. Efiari entzute aundiko gizonen egin-tzak itzalgañi izan oi zaizkio. Gaztediari bateze. Ia esan, Benavente'ren antzerki-gai bat antzeztutzero zoaztela Eferderi, Bergara edo Zarautz'en, ia bufundaraz befi au zabaldu; aski dezute antzokia bete eta begi-belafñi-ernal oztea eukitzeko. Ikusiko zenduteke.

Eta pitinka-pitinka, antzerki-gai bikafñak ikusteaz batera, efiar azitzen joango litzal-guke.

Ugaldu bezaizkigu bai Al-tzaga, Labayen eta Carrasquedo'ren giñoko antzertigileen ondoan, Lopez-Mendi-zabal, Sabiaga eta Zaitegi'ren antzekoak. Itzulariak.

ARITZETA.

- Epailaren 4'an.—Donosti'ko Euzko-Etxekoak.  
 Epailaren 11'an.—Ondañoa ko Euskaltzale Bazkunekoak.  
 Epailaren 18'an. Eñenderi'ko Euzko-Batzokikoak.  
 Epailaren 19'an.—Bergara'ko Zafontzale Bazkunekoak.  
 Joñailaren 1'an. —Soraluze'ko Abenda-Etxekoak.  
 Joñailaren 8'an.—Andoain'go Euzko-Gaztedikoak.  
 Joñailaren 14'an.—Deba'ko Euzko-Batzokikoak.  
 Joñailaren 15'an.—Bergara'ko Euzko-Batzokikoak.  
 Joñailaren 22'an.—Alegi'ko Euzko-Etxekoak.  
 Joñailaren 29'an.—Zumaya'ko Euzko-Batzokikoak.

Epai-mayekoak dira: Altzaga'tar T., Olaizola'tar J., Bafiola'tar A., Zaldúa'tar B. eta Uranga'tar J. I.

Antzezleri talde bakoitzak adierazitako antzerkia antzeztu bear du. Ezin aldatu lezateke.

II'na. - *Talde bakoitzak nor bere eñian "ETXE-ALDAKETA" antzezteko.*

### I'go TALDEA

- Epailaren 18'an.—Tolosa'koak.  
 Epailaren 19'an.—Eñenderi eta Pasai D. Kepakoak.  
 Joñailaren 1'an.—Lekeitio eta Ondañoakoak.  
 Joñailaren 8'an.—Deba eta Zumayakoak.

### II'gafan TALDEA

- Oñailaren 18'an.—Andoain eta Alegikoak.  
 Epailaren 10'an.—Bergara'ko Euzko Batzokia.  
 Epailaren 11'an.—Bergara Zafontzale Bazkuna.—Soraluze.  
 Epailaren 18'an.—Donostia.  
 Epailaren 19'an.—Urnieta eta Lasarte.  
 Laistefen guziei "Etxe-Aldaketa" bidaliko zaiote. Idazkiz dioazkiote talde bakoitzari uafak eta jakingafiak. Aldez aurre'ik jakin araziko zaiote zer orduetan antzeztu bear duten, epailariak garaiz iritxi ditezten.

---

---

# 8 PESETA URTEKO!

---

besterik ez da ordaindu bear ANTZERTI'ren  
arpidedun izateko. Nai duenak, lenbailen  
jakin-erazi, laguntza bear degu-ta.

---

---